

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko urtarrilaren 24a. IX. urtea. 2347. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Euskara ikasteko metodologia berritzailea aurkeztu dute

Hizkuntza ahoz eta kantuz ikasteko Hiahoka proiektu pilotuaren aurkezpena egin du Banaiz Bagara elkarteak Villabonan **05**



Ero Etxeko krosaren podiurtean saridun guztiak elkartu ziren. SARA GOMEZ

800 haur inguruk parte hartu dute Ero Etxe elkartearen XXV. krolean

Tolosan egiten den probaren antolatzaileak oso gustura agertu dira, azken hamabost urteetako parte hartzerik handiena izan delako **05**

Anjel Arrospide Urrezko Aizkora txapelketako finalerdietan izango da

Aizkolari leaburuarrak eta Ugaitz Mugertza mutrikuarrak Lopez eta Erasun gainditu dituzte **07**

Eskualdeko pilotariak partida guztiak galdu dituzte binakakoan

Barriolak bere lehen partida galdu du txapelketan; Saralegik eta Bengoetxea VI.ak ere, punturik ez **07**




LITERADILLOS

→ **Ihoteak, azken txanpan.** Eskelariak umore eta giro onarekin aurre egin zieten, atzo, eguraldi txarrari eta baserrietara iristeko aldapa eta bide lokaztuei. Leitzako Ihoteetan, Gorritzaranen eta Erreka auzoan aritu ziren eskean. Gaur emango diote agurra festei, eta arratsaldeko atsaureen kalejira izango da ekitaldi nagusia. **02**

Egoitz Zalakain, Espainiako txapeldunorde neguko triatloian

Kirolari tolosarrak bere ibilbideko lorpen garrantzitsuenetakoa eskuratu du Jacan; Beasaingo Jon Erguin txapeldunarekin elkarlanean arituz lortu du bigarren postua **06**



Egoitz Zalakain, ahaleginean. HITZA

Eskean dabilenarentzat, aldaparik ez

Baserriz baserri aritu ziren atzo eskelariak; gaur izango da Ihoteen azken eguna, atsaureen kalejirekin

Iñigo Terradillos Leitza

Ez eguraldi txarra, ez eta baserrietako bideetako lokatza ere, ez dira traba izan eskelariarentzat. Umore onez, giro ezin hobean aritu dira baserriz baserri eskean. Izan ere, merezi du esfortzuak, geldialdi bakoitzean jan eta edan ederra izan baitute zain.

Leitzako Ihoteetako hirugarren eguna zen atzokoa. Larunbatean herrian zehar aritu ziren eskean, eta atzo, berriz, baserrien txanda zen. Bi taldetan banatu ziren eskelariak. Bata, Gorritzaran aritu zen, eta bestea, Erreka auzoan. Horrela aritu ziren goizean hasi eta iluntzera arte, musika lagun zutelarik, giro paregabea.



Suziria botaz iragartzen dute eskelariek baserrira iristen ari direla. Horretarako, baina, maldaren bat edo beste igotzea beharrezkoa da. | I.TERRADILLOS

Gaur, atsaureen kalejira

Lau eguneko festak gaur du akabera. Eskean ariko dira gaurkoan ere, Erasote auzoan, eta haurrei zuzendutako jokoak eta antzerkia izango dira goizean eta arratsaldean. Baina, ekitaldi nagusia arratsaldeko atsaureen kalejira izango da. Herriko hainbat txokotatik irtengo dira jantzi koloretsuak dituzten adardunak soinu itzela eginez. Barrikoteak jarriko die puntua aurtengo jaiei.

↓ Egitaraua

URTARRILAK 24, ASTEARTEA

- **09:00.** Erasote auzoko eskea.
- **11:00.** Umeentzat jokoak frontoian.
- **16:30.** Atekabeltzen antzerkia: *Eguzkiaren bidaia*.
- **18:00.** Atsauretuen kalejira (Eguraldi txarrekin, plazako karrapean).
- **19:30.** Dantzadi taldea plazan.
- **21:30.** Barrikotea Torren.



40 lagun inguruko taldea aritu zen atzokoa Gorritzaran auzoko baserrietan eskean. Irudian, baserrietako batean mokadutxoa hartzen. | I.TERRADILLOS



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Alegiako San Juan kalean; 3 logela, terraza eta bi trastelekurekin. Deitu 626 867 636 zenbakira.

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume eskalduna behar dugu, adineko pertsona bat zaintzeko Bidan. 639 214 555.



Larunbatean bazkaria egin zuten eskelariek Aurrera elkartearen. ASIER IMAZ

Musikoterapia saioa antolatu du Hirukide ikastetxeak

Hiru egunetan izango dira eskolak; gaur, 16:30ean, 18 eta 36 hilabete arteko haurren txanda da

Rebeka Calvo

Tolosako Hirukide ikastetxeak musikoterapia saioa antolatu du haur eta gurasoentzat. Saioak irekiak izango direla ere nabarmendu dute, hau da, tolosar guztiak dutela parte hartzeko aukera. Hi-

rukideko haur eskolan izango dira eskolak, eta teoria zein praktika landuko dituzte.

Horiek horrela, 18 eta 36 hilabete arteko haurren saioa gaur izango da, 16:30ean; 0 eta 18 hilabete bitartekoek, berriz, etzi, hilak 26, dute hitzordua, 16:30ean; eta haurdun daudenean hilaren 31n izango dute saioa, 17:30ean.

Izena eman nahi dutenek 943 67 39 48 telefono zenbakira deitu behar dute, edo hirukide@hirukide.org helbidera idatzi.

Hirukideko arduradunek azaldu dutenez, musikoterapia oso

baliagarria da, izan ere, «haurrak musika eta mugimenduarekin zerikusia duten jardueretan parte hartzen duenean arlo guztietako neuronen arteko koneksioak indartzen dira, garunaren garapena indartuz».

Saioen helburuak hauek dira: «Haurrak bere ingurune hurbila ezagutu eta parte hartzen hastea; entzumena garatzea; komunikatu eta sozibilizatzeta; imajinazioa erabili eta sormena indartzea; hitzekin adierazi ezin dutena adierazi; eta gozatu eta entretenitzea».

Et Incarnatus Orkestraren emanaldia gonbidatu bereziekin, Leidor aretoan

Ostiralean izango da kontzertua; sarrerak 'www.kutxa.net' webgunean eskuratu daitezke

R. Calvo

Ostiralean, hilak 27, emanaldi berezia izango da Tolosako Leidor aretoan. Tolosako Migel Zeberio kontzertuaren emanaldi izango da, baina taula gainean ez dira bakarrik izango. Izan ere, Ken 7 taldeko Eñaut Elorrieta, Baigorriko Gaiteroak, Xiberoako Amaren Alabak taldekoak, Tolosako Lask abesbatzakoak eta Tolosaldeko Juantxo Zeberio, Itsaso Etxebeste, Jon Arruebarrena, Antton Telleria musikariak eta Juan Urretabizkaia dantzaria izango dira Leidorreko taula gainean. Saioa 20:30ean hasiko da.

Kontzertu berezi hori iaz Bai-

gorrin egin zen Nafarroa egunerako prestatu zuen Et Incarnatus Orkestrak. Emanaldia arrakastatsua izan zen oso, eta orain Tolosan bertan ikusteko aukera ere izango da.

«Doinu ezagunak»

Juantxo Zeberio esandakoaren arabera, «doinu ezagunak, hunkigarriak» joko dituzte: «Doinu batzuk zaharrak izango dira, berrak besteak; Mikel Laboa, Xabier Lete, Ken 7, Tolosako Inauteriak... Guztiak soineko berriak jantziak orkestrarentzat konzertu honetarako espresuki egindako moldaketa berri eta ederrakin». Tolosako musikariak gaineratu duenez, «entzulea emozioz gainezka jarriko duen kantu sorta ederra eskainiko dugu».

Sarrerak www.kutxa.net webgunean eskuratu daitezke jada, hamabi eurotan. Leidor aretoko leihatilan ere erosi ahal izango dira, emanaldiaren egunean bertan.

Bolivia eta Peruko emakume baserritarren esperientziak

Mugen Gainetik elkarteak antolatuta, hitzaldia emango dute gaur bi emakume baserritarrek

I. Garcia

Mugen Gainetik gobernuz kanpoko elkarteak solasaldia antolatu du gaurko, Tolosako kultur etxean. Boliviako eta Peruko emakume baserritarrek bere esperientziak azalduko dituzte, 19:30ean hasiko duten ekitaldian.

Bi baserritarrek parte hartuko dute: Patricia Bustamente boliviarrak, Cecasem zentroko lehen-dakariak, eta Blanca Guisgueda fruta ekoirole peruarrak. Biek baserritar elkarteetan lan egiten dute, eta tokiko garapena eta genero ikuspegia lantzen dituzte euren jardunetan. Mugen Gainetik elkartearen helburua, solasaldia antolatzerakoan, emakume baserritar horiek bere esperientzien eta lan egiteko moduen berri ematea da.

Gutuna

Tolosagasa saldu behar ote?

Tolosako EAJk jarri du mahairen gainean eta iritzi publikoaren aurrean gaia 2012ko udal aurrekontuen eztabaidaren kontura. Udalak inbertsioak egin ahal izan ditzan krisi ekonomikoko garai honetan Tolosagasa enpresan udalak duen partea (% 60) saltzea behar-beharrezkoa ikusten du. Gaineratzen du, orain dela aukera eta denbora pasa ahala enpresaren merkatu-prezioa jaitsi egingo dela. Halaber, udal gobernarekin akordioetara iristeko ezinbesteko baldintza moduan jarri du salmenta.

Auzia ordea ez da berria. Aurreko legegintzalditik dator Tolosagasa saltzeko EAJren asmoa. 2008aren bukaeran edo 2009aren hasieran izan genuen asmoen berri. Diskrezioa eskatu zitzaigun orduan. Plazan jarri dute gaur.

EAJk bere asmoak agertu zitgunean, bi galdera paratu genuen EB-Aralar udal taldea osatzen gurengok: zergatik? Eta zertarako? Lehenengoari erantzuna eman ziguten, bigarrenari ez.

Zer egiten du Tolosagasa? Tolosagasa gas-banatzaila da. Berak jarri ditu Tolosan gasa banatzeko azpiegitura fisikokoak eta bide ematen dio beste enpresa bati gasa merkaturatzeko. Alegia, Tolosagasek ez du gasik saltzen, saltzaileei azpiegitura alokatzen die. Alokairuaren zenbatekoa finkatzeko modua Espainiako administrazioak ezartzen du.

Espainiako administrazioak gas-banatzailen azpiegiturak ordaintzeko sistemak aldatzeko ezarriko zituela eta aurrerantzean Tolosagasaren etekina asko murriztuko zela eman ziguten arrazoitzat. Gainera prezio onean saltzeko orduntze omen zen unerik egokiena. Aholkulari pare baten txostenak pasa zitzaiguten. Etorrizuzen Tolosagasaren etekina txikiagotuko zela zioten bi txostenek. Izan ere, Tolosagasa oso errentagarria da: gasaren banaketatik 2009 eta 2010 urtee-

tan 300.000 eurotik gorako etekina eman dio udalari eta 2011an 420.000 eurokoa.

Zertarako galderari ez zion EAJren udal gobernua erantzunik eman, 'proiektuak badiugu' orokor batetik haratago. Legegintzaldiaren bukaeran, salmentarekin Elosegir parkearen desjabetzea ordaintzeko izan zitekeela eman ziguten aditza.

Argi eta garbi adierazi genion EAJren udal gobernua ez genuela egoki ikusten Tolosagasa saltzea, patrimonio publikoa saltzearen aldekoak ez ginela eta are gutxiago patrimonio errentagarria. Azpimarratu genien kontsidera genezakeela salmenta baldin eta, lortutako etekina beste patrimonio publiko 'errentagarri' bat eskuratzeko bazen.

Aralarrek orduan esandakoari eusten dio. Tolosagasa saltzearen alde ez gaude printzipioz. Ez gaude itxita salmenta posible bat aztertzeari, baina beti ere udal patrimonioa ez galtzea darraren proiektu bati lotuta. Horrelakoak izan daitezke, adibidez: udal etxebizitzaren parkea handitzea edo jarduera ekonomiko sustatzea eta enplegua sortuko duen azpiegitura bul-tzatzea (Araxes paper-fabrikaren erostea eta bertan polo ekonomiko bat sortzea). Gure irudiz, Tolosagasaren balizko salmentatik lor daitezkeen plusbalioak ezin litezke bideratu ez gastu korrontea ordaintzera ezta mantenimenduzko inbertsioak egitera. Kale-konponketa, berriurbanizazio-lanak eta antzekoak aurrekontu arruntaren bidez eta ohizko mantenimenduzko inbertsioetarako planen bidez finantzatu behar dira. Aralarren ustez, ez-ohizko diru sarrerak, proiektu singularrak finantzatzeko erabili behar dira.

Bukatzean, Aralarrek garbi du Tolosagasa udal ondarea izanik, hots, tolosar guztion ondarea, herritarrei bidea eman behar zaiela Tolosagasaren etorkizunaz iritzia emateko.

■ **Albaro Atorrasagasti eta Iñaki Irizarbalbeitia.** Aralar alderdia.

ATE IREKIAK

Goierriko campusa

INGENIARIATZA

URTARRILAK 26 osteguna, 17:30

ORDIZIA

GOI ESKOLA POLITÉCNICA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

hitza

jertsea

Helduentzako Jertsea:

lehen **29,5 €**

orain, eskaintza berezia

25 €

Noiz eta nola egin eskaria?

- TELEFONOZ: 902-82 02 01
- POSTAZ: harpidetza@hitza.info

* Jertsea probatu nahi baduzu, zator HITZAREN bulegora

Irudia Tolosa



150 LAGUN BAINO GEHIAGO

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plattformatik herritarrei larunbateko bilera irekia ahalizteko deia egin zuten, eta hainek Tolosaldeko udalarekin hitz egin zuten. Jabi Arana medikuak, Cristina Pelaez Denboraren bankuko kideak eta Mari Mujika Labardariarik bat egiten duten 18.000 lagun-en sinadura dutela azaldu zuten.

Irudia



SAN SEBASTIAN OSPATUZ

Tolosaldeko hainbat herritan, ostiralean, San Sebastian eguna ospatu zuten. Berrobia eta Berastegin meza nagusia egin zuten, besteak beste. Orendaninen baselizaara joan ziren, hamakiletakoaren aurretik eta Leaburun ermitaren aurrean dantzan aritu ziren.

Irudia Tolosa



BERTSO EGARRIA ASETZEN

Txolame Irratiaren urteroko bertso saila ospatu zen larunbatean Leizorren, eta izan zen sarrerarik gabeko geldituzenik ere. Lepo bete zen aretoa, Maitalen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia, Andoni Egaña, Aitor Sarriegi eta Jexux Mari Irazuz gozatzeko.

Irudia Tolosa



AHT-REN AURKAKO DEIA

Gipuzkoan egin nahi diren azpiegitura eraldioen aurkako manifestazioa egin zuten larunbatean Tolosan. Abiadura handiko trenaren aurkako oihuki nagusitu ziren bertan, eta proiektuak gelditzeko borrokan jarraitzeko konpromisoa hartu zuten bertarekin. Trianguloatik abiatu eta Plaza Berriaren amaitu zen manifestazioa 250 lagun-iguru elkar-tu ziren.

Irudia



Garenak **x2** izateko

Lagun lezaguz harpidedun berriak egiten

ekar ezazu **hitzaren harpidedun berri bat**

Galnera, gertukoak zori-zonteko agur bat oparituko dizugu **HITZ**an argitaratzeko.


HITZA, euskarazko herri informazioaren leihoa

eta **opari bana** jasoko duzue

HITZAren **Jertzea** harpidedunak

Mahala saskia harpidedun berriak

Harpidedun berri urtararen 31 baino lehen ekartzen dutenentzat.



Tolosaldeko irteera bidera eman zuten Ero Etxe krosari, etxi. 1.000.000

Ero Etxe krosa, azken 15 urteetako jendetsuena

A. Imaz Tolosa

Antolatzaileak oso gustura agertu dira XXV. Ero Etxe krosarekin. Elkarteko kideen esanetan, azken hamabost urteetako jendetsuena izan da aurtengoa, 800 haurrek hartu baitute parte bertan. Igandean eguraldia iluna izan zen arren, euri tanta gutxi batzuk orot ziren zurutik, eta horrek gustura agertu ziren Ero Etxe Elkarteko kideak. Proban, udal ordokiarik ere izan ziren, Ibai Iriarte alkatea buru zutela. Irabazleei dagokienez, lehen postuan Agurme Zubillaga (Aralar Institutua) eta Luis Mert Gorriano (Hirukide-Eskolaploak) iritsi ziren helmugara. Bigarren postuan, Eider Calahorra (Laskorain) eta Ander Pegoña (Hirukide-Eskolaploak) sailkatu ziren.

Euskara, ahoz eta kantuz ikasteko proiektu pilotua aurkeztu dute Mintzolan

Hahoka proiektu pilotua Villabonan martxan aurkitzen da, eta laster Tolosara zabalduko dute

Astier Imaz Vilabona

Euskara ikasteko metodologia berria eta berritzailea aurkeztu dute Villabonako Mintzolan fundazioan. Banaiz Bagara elkartaren eskutik. Ahozotasunaren oinarritzen da Hahoka izeneko proiektu pilotua, eta euskal kan-tugintzatik elikatzen da. Banaiz Bagara elkar-teak etorkinekin egiten du lan, hain zuzen ere, euskara eta etorkinak uztartuz.



Euskara ikasteko Hahoka proiektu pilotua aurkeztu zuten atzo Mintzolan fundazioan. A. Imaz

1 Zabalaga Sagardotegia
Bi laguntzako bazkaria edo afaria

Osagarreta baserria
Aduña
Tel.: 943-469 07 74
www.zabalaga.com

Telefono parta hartzeak eskaintza zerbakia: 51

2 Isastegi Sagardotegia
Bi laguntzako bazkaria edo afaria

Aldaba Txiki, 15
Tolosa
Tel.: 943-465 29 64
www.isastegi.com

Telefono parta hartzeak eskaintza zerbakia: 52

3 Sarasola Sagardotegia
Bi laguntzako bazkaria

Aldaba
Tel.: 943-469 02 83

Telefono parta hartzeak eskaintza zerbakia: 53

4 EUREKA! zientzia museoa
Bi laguntzako bina sarrera

Makelategi, 43-45
Donostia
Tel.: 943-461 24 78

Telefono parta hartzeak eskaintza zerbakia: 54

5 'Zazpikoloroa'
Pirritx, Porrotx eta Marimotx
Bi laguntzako bina sarrera

Belatxeta kulturalgia • Ibarra
Otekalu 18, 01010

Telefono parta hartzeak eskaintza zerbakia: 55

Parte hartzeak deialdiaren 902-82-02-40 / txokoa@hitzza.info harpidedunen koda, izena, herria, eta zaindegarritan parte hartu nahi duzun guri ederrengatik. Informazio gehiago, zaindegarritan parte hartu nahi duzun orduan, zaindegarritan parte hartu nahi duzun orduan, zaindegarritan parte hartu nahi duzun orduan.

Kirolak

↓ **Kirol emaitzak**

PILOTA

BINAKAKO TXAPELKETA	
Bengoetxea VI-Apraiz	14
Titin-Merino II	22
Olaizola II-Beroiz	22
Irujo-Barriola	15
Xala-Laskurain	22
Saralegi-Begino	6

PROMOZIO TXAPELKETA

Urrutikoetxea-Otxandorena	10
Jaunarena-Merino	22
Olaetxea-Aretxabaleta	21
Gorka-Arruti	22
Olazabal-Larrinaga	22
Rico IV-Mendizabal II	18

UDABERRI TXAPELKETA

Kadeteak	
Alberdi (Aurrera Saiaz)	18
Txapagain	22
Peña (Aurrera Saiaz)	22
Goierri	17
Agirretxe (Aurrera Saiaz)	22
Lagunak	18

Jubenilak

Galarraga (Aurrera Saiaz)	22
Ormazabal (Intxurre)	15
Balardi (Aurrera Saiaz)	22
Zestoa	18

Seniorrak

Ariztimuño (Aurrera Saiaz)	22
Galarraga (Intxurre)	13

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA	
18. jardunaldia	
Tolosa CF-Bergara K.E.	4-0

Sailkapena

1. Anaitasuna	38p
2. Berio	35p
3. Tolosa	35p

Hurrengo jardunaldia

Elgoibar-Tolosa CF	
--------------------	--

ERREGIONAL PREFERENTEA

17. jardunaldia	
Lehen taldea	
Usurbil-Tolosa B	2-2

Sailkapena

1. Touring	38p
3. Tolosa	36p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa B-Kostkas M. Bihotza	
-----------------------------	--

Bigarren taldea

Intxurre-Idiazabal	1-1
--------------------	-----

Sailkapena

1. Lagun Onak	33p
2. Getariako Keta	30p
16. Intxurre	12p

Hurrengo jardunaldia

Zumaia-Intxurre	
-----------------	--

ARETO FUTBOLA

BIGARREN B MAILA	
12. jardunaldia	
Laskorain	4
Ebrosala	4

Sailkapena

1. Ebrosala	27 p.
2. Kirol Sport	24 p.
3. A.D. Sala 10	22p.
12. Laskorain Ikastola	12p.

Hurrengo jardunaldia

Zalatambor Area-Laskorain	
---------------------------	--

HIRUGARREN MAILA

16. jardunaldia	
Meatzari-Egintza	0-4
Sasikoa-Ibarra	0-2

Sailkapena

1. Ibarra	39 p.
2. Sestao	36p.
3. Aurrera Vitoria	32 p.
11. Egintza	18 p.

Hurrengo jardunaldia

Ibarra-Gora	
Egintza-Mallabia	

EUSKAL LIGA

16. jardunaldia	
Kurutziaga-Tolosala	2-4
Tolargi-Sasikoa	6-4
Eskolapioak-Berri Otxoa	8-4

Sailkapena

1. Hirukide Tolosala	36 p.
2. Tolargi	34 p.
7. Eskolapioak	21 p.

Hurrengo jardunaldia

Hirukide Tolosala-Uxo	
Lagun Onak-Tolargi	
Mamarigako-Eskolapioak	

SASKIBALOA

LEHEN MAILA	
Bide Bide-Seky.es	61-74

Hurrengo jardunaldia

Mondragon Uni.-Bide Bide	
Sailkapena	
1. Seky.es	9-4
2. Bide Bide Ibiza	9-4

4-4 berdindu du Laskorainek, Ebrosala liderraren aurka

12 puntu lortu dituzte tolosarrek lehen itzulian, eta sailkapeneko 12.postuan dira

Iñaki Egizabal

Beste partida handi bat dastatzeko parada izan zuen, joan den larunbatean, Usabalen bildutako zalegoak. Lehen itzuliari bukaera emateko, Laskorainek Ebrosala sailkapeneko lider tinkoa hartu zuen etxean, eta 40 minututan zehar gogor lan egin eta gero, puntu bat eskuratu zuen, 4-4 berdinduta.

2. A mailarako igoera jomuga dutela, zaragozarrek gaztetasuna eta eskarmentua orekatzen dituen taldea dute, eta 1. mailan ari-tutako lau jokalarirekin, txapelketaren ekuadorrean sailkapeneko jaun eta jabe dira. Horitxoak,

ostera, azken sasoiaren bolada gogorren murgilduta, amorruez beterik daude, eta hori erakutsi zuten larunbatean, batez ere partidaren hastapenean.

Lehen minututik azkenekoraino Ebrosalako enpresa posizionalak arazo handiak sortu bazikien ere, neurketa hasieran ikasitolaok aise irten ziren kontraerasora, eta ate aurrean aragoitarrek baino gutxiago bar-katu zuten. Murgi mikolasaren, eta denboraldiko errebeldioa den Etxeberen golek, 2-0 aurreratu ziren, atsedendidiaren aitzinetik kanpotarrek aldea murriztu zuten arren.

Aldageletatik bueltan, aldiz, aragoitarrek azeleragailua zapaldu zuten nabarmen, eta bigarren zati guztian zehar arazoak larriagoak izan ziren horitxoentzat. Baina ez zuten amore eman, 2 eta 3koarekin ere ez, eta erasora irte-teko zailtasun handiak izan arren, Barack Telleriak hiruna-

koa sartu zuen jokaldi solte batean, eta faltako 'pinball' estrategian, Gil TDK 4-3koa sartu zuen. Itxaropenak, ordea, segundo gutxiz iraun zuen, Ebrosalakoek ia jarraian egin baituzten launakoa.

Berdinketa baliotsu honekin Laskorainek hiru garaipen, hiru berdinketa eta zazpi porrot pilatu ditu lehen itzulian, eta 2. B mailari eusteko beste hainbeste egin beharko du, gutxienez, bigarren-goan. Honetarako, larunbatean erakutsitako grina eta lanerako prestutasunari, konfiantza pixka bat besterik ez zaio gehitu behar, eta horixe berreskuratu behar dute lehenbailehen, horitxoek.

Zaragozako Ebrosala talde liderrari, Javi eta Jorge rumba ordezkariek -hori da kantxa garbitzeko modu robotikoa hori-, Javi eta Aitor entrenatzaileek eta Endika, Telleria, Lander, Gil, Etxebe, Murgi, Loitzun, Diez, Zubillaga eta Aratz jokalariek egin zioten aurre.

Egoitz Zalakain bigarrena izan da neguko triatloien Espainiako txapelketan

TTTko Igor Aranburu ere txapelkunordea izan zen bere adin taldean; Maider Gaztañaga kanporatu egin zuten

I. Urkizu Tolosa

Egoitz Zalakain tolosarra neguko triatloien Espainiako lehiaketako txapelkunordea izan zen, pasa den larunbatean Jacan egindako proban. Hura izan zen, 1999an, bere lehenengo triatloia, eta bere ibilbideko titulurik garrantzitsuenetakoa da lortu berri duena.

Iaz bosgarren lekuan amaitu zuen proba, eta faboritoen artean zegoen Zalakain. Egin beharreko lanetan, 10 kilometro egin zituzten korrika Jacako hirigunean, 33 kilometro bizikletan egin zituzten Candanchuko eski estazioaraino, eta azkenik, 10 kilometro osatu behar izan zituzten iraupen eskian. Ibilbide honetan, irabazle suertatu zen Jon Erguin beasaindarrak eta Egoitz Zalakainek beren lana uztartzea erabili zuten estrategiatzat, eta eskiak hartzea gainontzeko par-

taideak atzean utzita iritsi ziren biak ala biak.

Tolosaldeko Triatloi taldeko Igor Aranburuk, bere adin taldeko bigarren postua lortu zuen Jacan, eta Maider Gaztañaga, berriz, kanporatu egin zuten, argibide falta zela eta ibilbide okerra hartu eta gero.

Zalakainek ez du beste neguko triatloirik egiteko asmorik aurtan, izan ere, abuztuko Kopenhageko ironmana du atleta tolosarrak, 2012ko helbururik behinena; iazko seigarren postua hobetzen ahaleginduko da.



Egoitz Zalakain eta Josu Erguin, podiumean. HITZA

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tolosako Udalak 12 TRAFIKO LAGUNTZAILE hautatu behar ditu Udaltzaingorako, Inauterietan jarduteko (otsailaren 19an, igandea; 20an, astelehena; eta 21ean, asteartea). Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrako 6 A zkan, edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net). Eskaerak aurkezteko epea 2012ko otsailaren 1ean, 13:00etan, bukatzen da.

Tolosa, 2012ko urtarrilaren 18a.
ALKATEA, IBAI IRIARTE SAN VICENTE

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Elkano 5ean igogailu bat ipintzeko derrigorrezko desjabetze espedientea. Urtarrilaren 2ko 2012/2 Dekretuaren bitartez honakoa erabaki zen:

- Hasiera ematea Elkano 5ean igogailu bat ipintzeko derrigorrezko desjabetze espedientea.
- Jabekideak izendatzea onuradun.
- Jendaurreko epea: 15 egun azken iragarkia argitaratzen denetik.
- Ondasun eta eskubideen zerrenda: Ikus Gipuzkoako ADean, urtarrilaren 12an argitaratutako iragarkia.
- Alegaztion aurkezten ez bada, behin betikoz onartutaz emango da.

Tolosan 2012ko urtarrilaren 19an.
Alkatea

Ibarra taldeko neskek hirugarren postua eskuratu dute 540 kilokoan

Gizonezkoetan Ibarra hirugarren geratu zen 640 kilokoan, baina sailkapen orokorrean bigarren postuan doaz

Eneritz Maiz Amezketak

Amezketako pilotalekuan jokatu zen Euskadiko Sokatira Txapelketako laugarren saioa. Emakumezkoak eta gizonezkoak aritu ziren goma gainean sokan. Emakumezkoen 540 kiloko txapelketaren finala zegoen jokoa, eta Ibarra taldeak hirugarren postua eskuratu zuen.

Hirugarren urtez jarraian, gasteiztarrek eraman dute txapela Arabara. Emakumeen 540 kiloko txapelketa irabazi zuten. Beste behin, Badaiotzekoek, tiraldi guztiak irabaziz, hiru talde aurkariak mendean hartzea lortu zuten. Txapelketako aurreko bi jardunaldietan bezalatsu gertatu zen, eta beraien atzetik, hurrenez hurren, Sakana, Ibarra eta Bizindar taldeak sailkatu ziren. Ibarra-koek hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten.



Amezketako pilotalekuak goma gaineko sokatira txapelketarekin itxura berria izan zuen, igandean. SARA GOMEZ

Gizonezkoek dagokienean, 640 kiloko bigarren eta sailkapen faseko azken jardunaldia jokatu zen. Amezketako pilotalekua ez da ohiko plaza, eta pilota aldera batera utzita, goma gaineko sokatiralariekin ixura berria izan zuen bertaratutako gozamenarako.

Abadiño A sailkatu zen lehen

postuan 8 puntuak eskuratu. Jarraian, Sokarri eta Ibarra taldeak sailkatu ziren. Puntuazio orokorrari begiratuta, Abadiño A taldea doa lehen postuan, 18 puntuarekin. Ibarra taldeak bigarren postuan jarraitzen dio 15 puntuarekin, eta Sokarri taldea hirugarren postuan dago puntuazio berearekin.

Hauek gain, Amaiur, Abadiño B eta Basaburua-Imotz sailkatu dira finalerako. Aldiz, Zuraide, Txantrea eta 6 Conceyos taldeak 640 kiloko txapelketatik kanpora geratu dira.

Sailkatutako sei taldeek, otsailaren 4ean, larunbatean, jokatu dute finala, Durangoko Jai Alai Ezkurdi pilotalekuan.

Anjel Arrospide eta Ugaitz Mugertza finalerdietara pasa dira

Anjel Arrospide leaburuarrak eta Ugaitz Mugertza mutrikuarrak lan bikaina eginda lortu dute aurrera egitea

E. Maiz

Urretxun jokatu zuten igandean Urrezko Aizkorako kanporaketa. Lopezen eta Erasumen aurka jokatu eta gero, Arrospide eta Mugertza II.ak lortu dute finalerdietarako txartela.

45 ontzako enborra, kana erdiko bat zutik, bi enbor 45 ontzakoak, 45 ontzako bat zutik, bi 60 ontzako eta sei kana erdiko erditu behar izan zituzten bi bikoteek. Lan guzti horiek bukatzen lehenak leaburuarra eta mutrikuarra izan ziren, eta lan bikaina egin zuten garaipena eskuratzeko.

Gipuzkoarrek, 19 minutu eta 28 segundotan geratu zuten denbora, eta Lopezek eta Erasunek osatutako bikote nafarrak, 21 minutu eta 10 segundo behar izan zituen lan guztiak bukatzeko.

Bengoetxea VI.ak, Barriolak eta Saralegik ez dute punturik lortu

Irujo eta Barriolak txapelketako lehen partida galdu dute Olaizola eta Beroiz bikotearen aurka

Eredakzioa

Igandean jokatu zen Eskuz Bina-kako txapelketan ikusmin handiena sortu duen partida. Juan Martínez Irujo eta Abel Barriolak

osatu duen bikoteak, Aimar Olaizola eta Mikel Beroiz bikotearen aurka jokatu zuen Bilboko Miribilla pilotalekuan. Iberokoak eta leitzarrak, igandea bitartean partida guztiak irabaziak zituzten, baina Olaizola II.a eta Beroizen aurkakoan ezin izan zuten garaipena eskuratu.

Atzelariak lan bikaina egin zuten, baina aurrean goizuetarrak gehiago asmatu zuten. 16-15 tantotetara bitartean oso parekatua izan zen partida, baina hortik au-

rrerako tantoak gorrien aldekoak izan ziren 22raino iritsiz. Honela, sailkapen nagusian buruan doaz, eta Irujo eta Barriola bigarren postuan daude, partida bat galdua.

Tanto asko galduz

Larunbatean, beste leitzarraren txanda izan zen, baina Oinatz Bengoetxeak ere ezin izan zuten garaipena eskuratu Alexis Apraiz atzelaria lagun zuela. 22 eta 14 irabazi zieten Titin III.ak

eta Merino II.ak. Oinatz Bengoetxeak ez zuten asmatu tantoak bukatzen, eta bederatzi tanto galdu zituen. Ez zen orekarik egon partidan zehar.

Oinatz Bengoetxeak eta Alexis Apraizek, jokatuetakoko bost partidetatik bi baino ez dituzte irabazi.

Amezketarra, ezinean

Ostiralean jokatu zuen partida Azpeitian Ekaitz Saralegi amezketarrak Iker Arretxeren ordez. Begino zuen atzean lagun, eta

txapelketako lehen puntua eskuratzeko saiakera, ahaleginean geratu zen.

Ezin izan zuten ezer egin Xala eta Laskurain bikotearen aurka. Bikain jokatu zuten aurkariak, eta sei tanto baino ez zituzten egin Ekaitz Saralegik eta Aritz Beginok. 22 eta 6 amaitu zuten partida, eta erraz irabazi zien Aspeko bikoteak. Arretxe eta Begino bikoteak, berriz, partida guztiak galdu ditu orain artean.

• tolosaldean@hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

HITZALDIA

■ **Tolosa.** Mugen Gaietik elkar-
teak hitzaldia antolatu du Boli-
viatik eta Perutik datozen bi
emakume baseritarrekin, han-
go esperientzien berri emateko.
Patricia Bustamante Cecasem-
go lehendakaria eta Blanca
Guisgueda fruta ekoizlea izango
dira hizlariak. Solasaldia kultur
etxean egingo dute, 19:30ean
hasita.

DEIALDIK

■ **Tolosa.** May Colmenero mar-
golariaren ikasleen talde era-
kusketaren inaugurazioa,
19:00etan, Aranburu jauregian.
Otsailaren 25a arte izango da
ikusgai.
■ **Tolosa.** Hirukide Ikastetxeak
antolatu duen musikoterapia
ikastaroaren saioetako bat
egingo da, 18 eta 36 hilabeteen
arteko haurrei zuzendua.
16:30ean, Hirukideko haur esk-
olan.
■ **Tolosa.** Kontzertu berezia
izango da ostiralean, Leidor are-
toan. Et Incarnatus orkestrak,
Lask abesbatzak, Eñaut Elorrie-
tak, Baigorriko Gaiteroak talde-
ak, Amaren Alabak taldekoak
eta eskualdeko zenbait musika-
rik parte hartuko dute emanaldi
horretan. Ken 7, Mikel Laboa,
Xabier Lete eta abarren doinuak
entzungo dira. Sarrerak salgai
www.kutxa.net helbidean.

JAIK

■ **Leitza.** Ihoteen azken eguna
ospatuko dute: 09:00. Erasote
auzoko eskea. 11:00. Urmeentzati
jokoak frontoian. 16:30. Ateka-
beltzaren antzerkia: *Eguzkiaren
bidaia*. 18:00. Atsauretu kale-
jira. 19:30. Dantzadi taldea pla-
zan. 21:30. Barrikotea Torren.

Haur eskola berria, estreinatuta

Atzokoa izan zen
Orendaingo
Haurreskolaren lehen
eguna erabileran nitzeko
eraikin berrian

Eneritz Maiz Orendain

Atzo goizean herriko txikienek
Orendaingo haur eskola berria
estreinatu zuten. Ordura arte,
udaletxeko bigarren pisuan zu-
ten haur eskola, irteera zuzenik
gabe. Orain, udaletxe atzean egin
duten erabileran nitzeko eraiki-
neko behe solairuan egokitu dute
Orendaingo Haurreskola berria.
Larunbatean, auzolanean leku
aldaketa egin ondoren, lanean
jartzeko moduan dute eraikina.

Zazpi haur eta bi hezitzaile ditu
egun haur eskolak, eta epe labur-
rean haur bat gehiago izango
dute. Kanpotik barrura sarrera
zuzena izango dute, eta baita kan-
poan jolasteko tokia ere. Era bere-
an, leiho txikien ordez, beirate
handi bat dute. Argitasun natura-
laz gain, kanpoaldea ikusteko au-
kera eskaintzen die.



Erabileran nitzeko eraikin berrian dago haur eskola. Besteak beste, orain beirate handi bat du. E. MAIZ


Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C.I.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I.
Aralar kalea, 25.
Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak
Aiora (Alegia). Gaur 6 urte.
Zorionak etxekoan partetik.



Urte askoan!

Hogeitamaika urte, beti irrifarrak/ Euskal Herrian alde, lan gogor
eginaz/ gu hemendikan tinko, gure alegiaz/ zuek etxeratzeko,
guztion indarraz. Familiaren partetik, eutsi gogor!!!

hirukide
Tolosa
943 673 948
www.hirukide.org
hirukide@hirukide.org

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean
liburua erosteko aukera duzue:

- **Liburudendetan:**
Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €
Anoeta: Kuku-lore liburudendan,
Ibarran: Lurdes liburudendan,
Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan,
Babel liburudendan eta Elkartasun dendan,
Villabonan: Kazetaria liburudendan.
- **HITZAKo bulegoan:**
Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €
- **Eskaintza berezia**
HITZAKen egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak'
liburua ere eskuratu ahal izango duzue:
prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €.
Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak,
bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.